

opusdei.org

Danborrada, Tecnun-en ongi finkatuta dagoen tradizioa

Orain dela 4 urte sortu zen
konpainia Mayor Borja
Martinez danborraren eraginez

2019 Urt 28

Urtero, urtarrilaren 20an, San
Sebastian Martxa entzuteak zirrara
sortzen die hirian kokatzen diren
ehun danborraden lerroetako
pertsonei. Hala nola urtez urte
kaleetako espaloietan edo Parte

Zaharreko Konstituzio Plazan itxaroten ari diren oinezkoei. Festa hau atzerritik etorritako gazteak ere erakartzen ditu **Desmond Moru**, **Francisco Velasquez** eta **Andreina Morales** bezala. Nigeria, Honduras eta Venezuelatik etorritakoak. Tecnun-en ingeniaritza ikasketak hasi zituzten eta ordudanik ez zaie burutik pasatzen desfilatu gabe gelditzea.

Orain dela lau urte jarri zuen martxan konpainia Eskolak. Zehazki, **Borja Martinez**, Ingeniaritza Industrialeko Masterreko ikasle izana, ahalegindu zen martxan jartzen. Beren konpainia –irakasleek, enplegatuek, ikasleek eta ikasle izanek osatua– sortzeko ilusioak, hasierako oztopoak gainditu zituen, adibidez, banda bat aurkitzea. Hala ere, 2015tik hona bandak ez du hutsegin; Lumbierretik, Nafarroatik, etortzen da, hain zuzen ere.

Danborrak hilabete bat iraun dute
arrada egiten Nafarroako
Unibertsitateko Campus
Teknologikoan; iruindarrak,
bizkaitarrak, andaluziarrak,
Errioxakoak, baita nazioarteko
doktoreak saioak egiten egon dira
gaurko egunerako.

Euriak ez du Tecnun-eko
Danborradaren 129 partaideen –
danborrari, sukaldari, urketari, eta
gastadoreen artean–ibilaldia
galarazi. Hotzak era ez du gelditu
Koruak “ekipoaren festa” bezala
izendatu duen tradizioa, Tecnun-eko
egutegian ondo finkatuta dagoena;
partaideak beren artean ezagutzera
eraman ez ezik, giro lasaiagoan
harremanak izatera errazten duena.

ongi-finkatuta-dagoen-tradizioa/ (2026
Ots 28)